

## Bokala

- *First German Book*. 1923.
- *A Set of Postulates for the Science of Language*. Language 1926.
- *Menomini Texts*. 1928.
- *Sacred Stories of the Sweet Grass Cree*. 1930.
- Review of Ties. *Language* 7, 1931, 204-9.
- *Language*. London 1933.
- *Plains Cree Texts*. 1934.
- *Languages or Ideas?* Language 1936.
- *Linguistic Aspects of Science*, 1939.
- *Meaning*. Monatshefte für den deutschen Unterricht. Wisconsin 1943.

J. L. Iturrioz  
Itz.: Txillardegi

## Bokala

Gertakari *fonikoak*, bai *puntualak* bai *segmentalak*, →soinu konkretuak alegia, betidanik zatitzen dira bi partetan: *bokalak* eta →*kontsonanteak*.

*Ahotsa* edo →*tonu laringala*, *gloti gainetiko barrunbeetan* barrena trabarik gabe igarotzen denean, *bokala* dugu. Pasabide zabaleko soinua da, hortaz, eta →*ozena* eskuarki; nahiz, zenbait hizkuntzatan txutxuputxukan *gortutako bokalik* ere gerta badaiteke. Soinuek eskailera etengabe bat eratzen dutenez gero, *bokalak* eta *kontsonanteak* erabat bereziko litzuzkeen mugarik ez dago.

Hori dela-ta, badira:

- *Kontsonantetu* egiten diren *bolakal*. Euskarari gagozkiolarik: *gau*, *gaba*.
- *bokaldu* egiten diren *kontsonanteak*. Latinari gagozkiolarik: *faktum*, Port. *feito*.

→*Silabaren erdigunea* da *bokala*, haren *konstantea*, haren →*silabema*. →*Azentuaren* eta *tonuen* ezargunea izaten da.

→*Fonologia binaristak* (ik. *Fonetika orokorra*), lau sail nagusitan zatitzen ditu hizkuntzaren soinuak: *bokalak*, *kontsonanteak*, *sonanteak*, eta *lokailuak*.

Bokalek ezaugarri hauek bide dituzte beren →*matrizeetan*:

[+ bok]  
[— konts.]

Sonanteek, berriz, hauek dituztelarik:

[+ bok]  
[± konts.]

Nahiz *bokal guztiak* →*irekiak* izan, edo-ta *trabarik gabeak*, beren artean, eta *irekidura-mailari dagokionez*, honetara sailkatzen dira: *irekiak*, *ertainak*, →*itxiak*, eta abar. Artikulaguneari dagokionez, berriz, →*aurrekoak* izan daitezke edo-ta →*abosabaikariak*; edo-ta *erdikoak*, →*atzeakoak* edo →*belareak*. Besterik ere izan daitezke: →*abokari*, →*sudurkari*, *zabaldu* edo *ezpainkarituak*; edo-ta →*labur* edo →*luze*, *teinkoak*, edo *nasaia*.

→*Akustikaren aldetik*, →*formanteen* arabera sailkatzen dira *bokalak*. Horieta-ko bik F1 eta F2 deritzenek, eta farin-gearen eta ahoaren erresonantziaren emari direnek usuenik erabiltzen diren *bokalak* berezten dituzte.

Horretara, mota hauetako *bokalak* berezten dira:

- →*trinkoak* eta *barreiatuak*
- →*zorrotzak* eta →*lodiak*

Sailkapen hau, eta →*artikulazioaren* arabera egin ohi dena:

- *irekiak* / *itxiak*
  - *aurrekoak* / *atzeakoak*
- elkarren antzeakoak dira.

*Bokal guztien ezaugarria*, hau da: *organorik batere ukitu gabe ebakitzen* direla. Honetxek azaltzen du berorien aldamaila, *kontsonantei berei dagokiena* baino handiagoa.

*Euskarak*, azkenik, molde triangeluarren sistema dauka: oso maiz aurkitua, *bost* →*fonema bokaliko* ditu.

J. R. Zubiaur  
Itz.: Txillardegi

## Bokal-harmonia

*armonia vocálica* / *harmonie vocalique* / *vowel harmony*

→*Asimilazio* →*bokalikoaren* fenomeno bati esaten zaio. Fenomeno hau gertatzen deneko hizkuntzetan (turkieran, hizkuntza fino-hungariarretan), lekugune jakin bate-tako →*bokalaren hautapena* ez da →*askea*, beste bokal baten presentziak automatikoki determinatua baizik. Fineraz, kasurako, →*desinentziaren bokalismoa* erradikalaren *bokalak baldintzatzen* du hein batetan; honela, →*kasu* →*desinentzia* bera *-ssa* edo *ssä* izango da erradikalaren bokalaren arabera: *talo-ssa* «etxean», baina *metsä-ssä* «basoan». Turkieraz, →*hitzaren lehen bokala* →*aurrekoa*